# DONEJAKUE BIDEAK GERO ETA ZALETU GEHIAGO

Barnealdeko bidea aukeratzen duten erromesek gure eskualdea igarotzen dute › 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

Ostirala
2009-07-24

VII.URTEA 1.762.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

# AAM: «Euskal presoekiko elkartasuna areagotu dute»

**VILLABONA** Pedraz epaileak dispertsioaren aurka deituriko ekitaldiak baimendu ditu

**IRAKURKETA** Azken gertaerak «errepresio estrategiaren» zati direla diote AAMtik 4

## Emakumezkoen Gipuzkoako txapela jokoan, txirrindularitzako 5. Sari Nagusian

**VILLABONA-ZIZURKIL** Etzi izango da; elkarrekin antolatu dute bi udalek estreinakoz 5

## Atekabeltz Gaztetxeak IV. urteurrena ospatuko du bihar Leitzan 4



Ayestaran, Mosqueira eta Izagirre, atzoko aurkezpenean, Santio jaietako egitarauarekin. I. GARCIA

# BILLABONATARREN TXANDA DA ORAIN, SANTIAGOREN ESKUTIK

**VILLABONA** Atzo aurkeztu zuten Santio jaien egitarau ofiziala; zazpi egunez luzatuko dira eta gaur emango diete hasiera Transportes Lakunzako jokalariek jaurtiko duten txupinazoarekin 5




Manifestazioa egin zuten atzo. E. E.

## Gorostidi ez ixteko exijitu dute ehunka lagunek

**TOLOSA** Enpresa batzordea parte hartzeko eta irtenbidea bilatzeko prest azaldu da 2

## EAren lau zinegotziak orain Alkarbiden daude

**IBARRA** EAk hartutako «ideologia-deribarekin» ez direla identifikatzen azaldu dute 2

informazioa h

**Langileen udako oporraldia dela-eta**

HITZAren azken alea uztailaren 26an argitaratuko da. Egunkaria berriro izango da zuren etxeetan irailaren 2an.

**HITZA**ri buruzko informazioa



# Gorostidi ez ixteko exijitu dute ehunka herritarrek Tolosako kaleetan barrena

**Tolosa** » «Bizi duten egoera latzaren» adierazgarri manifestazioa egin zuten atzo arratsaldean, enpresa batzordeak deituta.

ERREDAKZIOA




Gorostidiko langileek nahiz hainbat herritarrek bat egin zutean atzo arratsaldeko manifestazioan. E. EZEIZA

Gorostidi enpresa bizitzen ari den «egoera larriaz» Tolosaldeko herritarrak ohar daitezen, atzo manifestazioa egin zuten, bertako langile batzordeak deituta. Ehunka lagun bildu ziren bertan, Gorostidi enpresa hiltzen ez uzteko eskatzeko. Egun, langileen batzordea ELAko sei ordezkarik, LABeko bik eta USOko batek osatzen dute.

Enpresa Batzordekoen hitzetan, «Gorostidiren orain arte ibilbideagatik eta duen tamainagatik oso garrantzitsua da eskualdearen etorkizun ekonomikorako». Egun 167 lagunek egiten dute lan bertan. Bestalde, azpikontratatutako enpresa ugari ditu eta, ondorioz, beste 300 langilerengan ere eragina izango luke lantegiaren itxierak.

Enpresa batzordea prest agertu da «parte hartu eta irtenbidea aurkitzeko bideragarritasun plan erreal batekin». Garbi dute, produktua eta merkatua badutela. Hori dela eta, «zuzendaritzaren norabidean aldaketa bat egitea» exijitzen dute. Honetaz gain, egun dauden zulotik ateratzeko, beharrezko ikusten dute administrazio publikoaren parte-hartzea. Baita banketxeena ere. Hau guztiagatik, ondorengo galdera luzatu zuten atzo Gorostidiko langileek: «Non daude gai honen inguruan ardura duten erakunde publikoak?». Bestalde, banketxeei ere kritika egiten die, galdetuz, «ea non daukaten orain arte jaso duten diru publikoa. Orain ez baitira ari itzultzen».

### Gorostidiren egungo egoera

Duela sei hilabete inguru enpresa zuzendaritzak lan erregulazio espediente bat aurkeztu zuen, eta ordutik EREan daude. Egoera hau hilaren 31ra arte luzatuko da, eta langileen batzordekoek duela egun batzuk egidako agerraldian azaldu zutenez, hortik aurrera ez dakite zer gertatuko den beraiekin. Hau da, ikusteke dago EREa luzatuko den edo ez. 168 lagunek egiten dute lan egun Gorostidin. Honenbestez, ehunka familik pairatuko lituzkete Apatta-Erreka industrigunean kokatuta dagoen enpresaren itxierak ekarriko lituzkeen ondorioak. Bestalde, ekaineko eta uztaileko soldatak ez dituzte jaso oraindik langileek, ezta aparteko ordainsariaere.

## Laburrak

### Asteburuan, Joxean Tolosa Txapelketako partidak

**AMEZKETA** • Joxean Tolosa pilota Txapelketako partidak jokatuko dira asteburu honetan. Gaur, 22:00etan, Aurrera Saiaz eta Burlata arteko norgehiagokak izango dira. Bihar berriz, 16:30etik aurrera, Andoain eta Igorrekoak aterako dira kantxara. Asteburuko azken partida, garai berean jokatuko da. Hemen, Irurtzun eta Erreka ariko dira elkarren aurka.

### Santio Egunean kantuan ariko dira Alde Zaharretik

**TOLOSA** • Bihar, Santio Eguna, jai eguna baldin bada ere, hil honetako azken larunbata denez, Tolosa Kantarikoak hor izango dira kaleak alaitzen. Joan den hilean urtebetetze ospakizunak izandako arrakasta eta gero, hileroko hitzorduarekin jarraitzen dute. Horrela, bihar kantujira izango da Tolosako Alde Zaharrean, 12:00etatik aurrera, Tontokaletik abiatuta. Larunbateko saioan, besteak beste, Txepe aita-semeak ariko dira inpernuko hauspoa astintzen, Ebaristo Elduaien zuzendari izango dutelarik bertan kanturako elkartzen direnek. Bestalde, antolatzaileek kantu liburuxka eramatea gomendatzen dute.

# Ibarrako EAko zinegotziak Alkarbidera pasa dira

**Politika** » EAk hartutako «ideologia-deribarekin identifikatuta sentitzen ez» direlako babesten dute alderdi politiko berria.

REBEKA CALVO

Ibarrako EAko kideek egindako Toki-Batzar baten ondoren erabaki zuten Udaleko lau zinegotziek —Luis Ignacio Alonsok, Juan Ignacio Arocenak, Itziar Jauregik eta Ion Ander Bastarricak— alderdia utzi eta sortu berri den Alkarbideko kide egitea. Ibarrako Udalean eskainitako prentsaurrekoan argitutakoaren arabera, hauek dira erabaki «zail hau» hartzeko arrazoiak: «EAk ezker erradikalaruntz hartutako bidea eta alderdi barruan dagoen demokrazia eza». Era berean, EAk hartutako «ideologia-deribarekin ez gara identifikatuak sentitzen. Hau guztia, gainera, azken hauteskunde autonomikoetan izandako emaitza txarren ondorioz irekitako hausnarketa prozesuan kokatu behar dugu», nabarmendu zuten.

### Orain arteko bidetik

Lau zinegotziek, dena den, «azken urteetan izan dugun ideia eta baloreekiko konpromisoa berretsi» nahi izan zuten. «Gurekiko konfidantza izan duten hautesleen aurrean Ibarrako herriaren eta bere herritarren alde lanean jarraituko dugula berretsi nahi dugu», argitu zuten.

Alkarbide «politikaren berrikuntzaren adibide»izan behar duela ere azpimarratu zuten. «Badakigu herritarrek politikagintzarekiko konfidantza berreskuratzeko nahia, hemen eta orain, helburu nagusia izan behar duela. Horretarako, beharrezkoak dira militantzia eta atxikimendu modu berriak, alderki politiko berriei ateak zabaldu behar dizkiegu eta politika egiteko moduan bultzada demokratiko eta parte-hartzailea eman behar dugu», gaineratu zuten lau zinegotziek.




Orain arteko EAko lau zinegotziak Alkarbideko kide egin dira. R. CALVO

## Hilberriak eta urteurrenak

I. urteurrena
**ARITZ JAINAGA LAKARRA**



Urtero ostoak erori arren berriro ostotzen zara
urtea pasa da eta zure ostoak ez dira erori.
Zure sustraiak gure barnean erroturik diraute,
Haritz sendo batek lurrean bezala.

**Zure lagunak**

ZARAUTZ
2009ko uztailaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Bide luzea izaten dute aurretik Santiagoraino iritsi nahi duten erromesek. Barnealdeko bidea hartu eta asko dira eskualdetik igarota, Donejakue bideko distantzia betetzen saiatzen direnak.

# Pausoz pauso Santiagoraino

ENERITZ IRAOLA

Asko dira urte sasoi honetan Donejakue bidea egiten duten erromesak. Motxila bizkarrean, Santiagorainoko bideari ekiten diote. Esperientzia dute batzuek, lehen aldia da beste batzuentzat. Hala ere, Euskal Herritik igarotzen direnean bi bideen artean aukeratu behar izaten dute. Batzuk itsasoa izaten dute bidelagun, besteek berriz barnealdeko bidea aukeratzen dute; gure eskualdetik igarotzen dena.

Bi aukerak historiaren parte dira eta bien gainetik igaro dira erromesen oin nekatuak. Pausoekin batera hamaika istorio uzten dituzte atzean. Frantziako bidea da famatuena Donejakue bidea egin nahi dutenentzat eta gehienek hau aukeratzen dute; baina jendez gainezka dago. Kostaldekoan erromesentzat ostatu gehiago dagoenez, orokorrean gehiago izan dira bide hori aukeratu izan dutenak. Hala ere, azken urte hauetan barnealdeko bidea indartzeko saiakera egiten ari dira.

### Tolosaldeatik barrena Santiagorantz

Barrualdeko euskal bidea, Baionakoa edo San Adriango tunela izenez ere ezaguna da. Kostako bidea bezalaxe, hau ere, Irundik abiatzen da. Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa)batzen da Frantziako bidearekin. Eskualdetik pasatzen den barnealdeko bide hau Irunen (Gipuzkoa) abiatu eta Zalduondon (Araba) amaitzen da. Santiagorainoko bidea zazpi etapatan banatzen da eta eta Tolosaldeatik igarotzen dena bigarren etapa da. Etapa hau Andoainen hasi eta Oria ibaiaren arroaren erdialdetik egiten da. Tartean, 36,6 kilometrotako bidea osatuta Beasainera iritsi arte.

Errepide ingurua albo batera utzi eta baserri giroan murgiltzen dira bigarren jardunaldi honetan ibiltariak. Villabonatik, Anoetatik eta Hernialdetik barrena Tolosara iristen dira. Alegiatik pasa eta bertatik, ingurune menditsuagoan barneratzen dira Albizturko Santa Marina auzotik eta Murumendi mendiaren magaletik barrena Beasainera iristeko.

Ohikoena den bideetako bat hau izan arren, badaude beste aukerak ere. Azken batean, erromes bakoitzak egiten du bere bidea. Gero Santiago bideko puntu ofizialak diren herriekin bat egiten dute. Beste ibilbide bat esate baterako, Zizurkildik igarotzen da.

### Eskualdean zer bistatu

Eskualdera etortzen diren bisitariek, badute zer bisitatu. Gure eskualdeko herri guztietako elizek esate baterako, urte luzetako historia gordetzen dute beren hormen artean. Tolosan ere erdi aroak utzi ditu ondareak. Besteak beste Ospital Zaharra (erromesei aterpea ematen ziena), Idiakez jauregia eta Santa Maria parrokia ikusteko aukera dago. Kostaldeko bidea da denetan famatuena eta erromes ugari ibiltzen dira bertan. Barnealdeko bide hau, lasaiagoa eta seguruagoa da erromes askoren iritziz.

Era eta adin guztietako jendea hurbiltzen da, jubilatuak zein gazteak. Hala ere, bide hau egiten duten gehienak eskualdekoak izaten dira. Atzerritarren artean, berriz, gehientsuenek bidea bizikletaz egitea erabakitzen dute; izan ere garraio hau aukeratzen dutenentzat egokiagoa da barneko bidea, kostakoa baino.



Anoetan ere badaude Donejakue bideko seinaleak. E. IRAOLA

### Bidearen garrantzia

XI. mendean Santiago apostoluaren hilobirako erromesaldiek ospea hartu aurretik, barneko bidea garrantzitsua zen dagoeneko. Errege Bidea izenarekin ezagutzen zen, komunikazio ardatzik garrantzitsuenaren papera betetzen baitzuen. Oria ibaiko ibarretik barrena Arabako lautadara iristen den bidea, erromatarren garaitik erabiltzen zen.

Alfontso X.ak ardatz horren inguruan hiribilduak eraiki zituen eta ondorioz, ardatzaren garrantzia areagotu egin zen.Tolosa garai hartan eraikitako hiribilduetako bat izan zen.

### Erromesen ostatuak

Santiagorainoko bidean atseden hartzeko tokien beharra izaten dute erromesek. Barneko ibilbidea aukeratzen dutenek zailtasun handiagoak izaten dituzte horretarako. Gure inguruan ez daude erromesen aterpertxeak. Horrela, askotan ostatu pribatuetara jo behar izaten dute. Hala ere, egoera hau hobetzeko proiektuak aurreikusten hasi dira. Orain arte udalek kiroldegiak egokitu izan dituzte erromesak etortzen direnerako. Tolosan Zuloaga Txiki da erromesen beharrei egokitutako aterpetxe bakarra, beherapen bat egiten diete etortzen direnei.

Azken urtean barnealdeko ibilbidea indartzeko ahalegin horretan proiektu ugari antolatu dira. Bideak seinalizatu dira Donejakue bidea pasatzen den herrietan egurrezko seinale bereziak jarriz. Hala ere, Tolosaldea Tour-etik adierazi dutenez, «erromes askok bideak ez daudela ondo seinalizatuta esaten dute eta asko galdu egiten dira». Bestalde, «erromesen ostatuak ere behar dira».Barnealdeko bidean ostatuak egonez gero, erromesen kopuruak gora egingo lukeela uste dute.

Kilometro ugariko bidea da Santiagorainokoa eta nekea nabaritzen da azken egunetan. Hala ere, esperientzia berezi bezala definitu ohi dute Donejakue bidea egiten dutenek.

Aukeratzen duten bidea edozein delarik ere istorio bat idatziko dute ibiltari guztiek beren oroimenean.



Tolosan 2006an egon zen erromes taldea,artxiboan. LEIRE MONTES

## Bidea bizikletaz

**Tolosa »** Hiru nafarrek antolatu duten bizikleta martxa Tolosatik abiatuko da abuztuaren 1ean eta abuztuaren 13 itzuliko dira.

E. IRAOLA

Geroz eta gehiago dira bidea bizikletaz egitea aukeratzen dutenak. Hiru nafarrek, Vianako bi herritarrek eta Arizaletako beste batek, asmo horrekin bat egin eta Santiagorainoko bidea bizikletaz burutzeko martxa bat antolatu dute. Norteko bidetik joango dira eta Tolosa izango dute bidaiaren abiaburua.

Abuztuaren 1ean abiatuko dira Tolosatik eta Santiagora abuztuaren 11n iristea aurreikusten dute. Tolosan emango dute lehen eguna, bertan merkatutik buelta bat emango dute eta txokolatearen museoa ere ezagutuko dute, besteak beste. Hurrengo egunean Debarako bidea hartuko dute norteko bidea jarraituz.

Oraingoz, hogeita hamabost lagun inguruk eman dute izena. Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Errioxa eta Kataluiniatik datoz eta Estatu Batuetako bikote batek ere parte hartuko du.

Oraindik norbaitek bidaiara joateko interesa balu, horretarako aukera izango luke. Interesatuek uztailaren 30ra arte izen emateko aukera dauka 687568258 (Fernando) edo 664129216 (Luis M.) zenbakietara deituta. 400 euroko kostua du bidaiak, prezio horretan bidaia asegurua, gosaria, bazkaria, lo egiteko lekua eta kirol arropa eskuratuko dira. Mendiko edo errepideko bizikletarekin egin ahal izango da bidea.

Bidaian zehar kiroldegietan egingo dute lo baina, Santiagora iristean hotelean geratuko dira lotan. Bi egun emango dituzte ingurua ezagutzen. Abuztuaren 12an Rias Baixas bisitatuko dituzte eta urrengo egunean itzulerako bidaia egingo dute. Aurreikusitakoa betez gero, abuztuaren 13an Tolosan izango dira.

# AAM: «Presoekiko elkartasuna areagotu besterik ez dute egin»

**Villabona »** Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «errepresio estrategiaren» baitan kokatu ditu herriko azken gertaerak.

**ASIER IMAZ**

Euskal presoen inguruko neurriak direla eta, Villabonan hainbat gatazka bizitu dira azken egun hauetan. Igande goizean, «presoen argazkiak kentzera joan ziren ertzainek herriko gazte bat gogor jipoitu» eta atxilotu egin zuten. Ondoren aske utzi zuten.

Herenegun berriz, «espainiar komunikabidez bete zen herria», Dignidad y Justizia elkarte eskuindarrak egindako debeku eskaria medio. Elkartearen ustez, jaietan Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) antolatu dituen ekitaldietan, «presoen ekintzak goraipatu eta terrorismoa goretsiko» da.

Dignidad y Justiziak bere iritzia Espainiako Auzitegi Nazionalean aurkeztu zuen, hemendik debekua gauza zedin. Santiago Pedraz epaileak ordea, euskal presoen sakabanaketaren aurkako ekitaldiak baimendu egin zituen herenegun, «manifestazio eta bilera eskubidea» urratuko litzatekeela erabakita.

**«Ez dute herri hau ezagutzen»**

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gertaera hauek «errepresio estrategiaren» baitan kokatu ditu, «inongo oinarri sozial eta politikorik gabeko jauzi kualitatiboak» direla azpimarratuz.

Euskal presoen argazkien afeneren atzean «dispertsio politikaren porrota» aurkitzen dela aipatu dute AAMtik: «Duela 20 urte martxan jarri zuten dispertsio politikak porrot egin die. Estrategia errepresibo horretan argazkien aferarekin jauzi kualitatibo eman nahi izan dute, errepresio politika horretan koska bat gorago igo dira».



Villabonako Berdura Plazan dispertsioaren aurkako ekitaldia eta herri afaria egingo dute etzi, 21:00etan. IMANOL GARCIA.

Baina Villabonako AAMrentzat agerian gelditu da oinarri politikorik eta sozialik gabeko ekimenak direla: Argazkien aferak «oinarri politikorik» ez duela agerian gelditu da. Euren ustez, «Barne Saila gurutzada bat ari da planteatzen, gatazka politikoaren izaera saihestezina den une honetan. Euskal Herrian 750 preso egoteak gatazka hori agerian uzten du. Kolektibo zabal horretatik erakunde armatuarekin lotura zuzena dutenak gutxiengoa dira, alegia, gaur egun euskal preso politiko gehienak euren eskubide politikoak eta zibilak ukaturik dituztelako aurkitzen dira espetxean». Adibide gisa, Villabonako Julen Zelarain eta Joxe Mari Olarra jarri dituzte; «bere ekinbide politiko-publikoarengatik aurkitzen dira une honetan espetxean», diote.

«Oinarri politikorik ez baldin badu, ezta oinarri sozialik ere. Villabonan, berriro ere, argi ikusten da hori. 5.000 biztanleko herri honetan 9 preso politiko dauzkagu, oso ezagunak eta oso maitatuak direnak; Ares jaunak bere polizia guztia Villabonako kaleetara presoen argazkiak kentzera bidaltzen duenean, presoenganako elkartasuna areagotzea besterik ez du lortzen», gaineratu dute. Horren adibide bezal etzi egingo duten dispertsioaren aurkako ekitaldia aipatu dute; «inoiz baino jendetsuagoa izango da, inoiz baino txartel gehiago saltzen ari direlako», azaldu dute.

Dignidad Y Justiciaren eta Pedraz epailearen inguruan, «eskubideen urraketak» aipatu ditu Villabonako AAMk beste hainbat gauzen artean: «Soilik zentzu batean izan zen ezustekoa debeku eskaria. Argi dago Dignidad y Justicia delakoak oinarririk gabeko gauzak egiten dituela. Debekuak manifestazio eta bilera eskubidea urratuko luke, eta oraingoan epaileak hori esan du, legearen txikle hori ahal duen bezala luzatuz. Baina Euskal Herrian eskubide urraketa horiek etengabeak dira. Oraingoan ez dakit Pedrazek zein irizpide erabili dituen hau zehazki baimentzeko, baina epaile batek esan duena baino garrantzitsuagoa da estrategia honen antzutasuna salatzea. Barne Sailak diseinatu duen plan hau ezjakintasunean oinarriturik dago: ez dute herri hau ezta bere soziologia ere ezagutzen. Villabonan adibidez argi geratu da presoekiko elkartasuna areagotu besterik ez dutela egin».

Amaitzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren esanetan elkartasun horrek jarraitu egin behar du, «preso politikoen lagunak eta senideak babesten jarraitzeko».

**Udalaren erantzuna**

Villabonako Udalak bere aldetik, debeku eskari eta baimentze hauen inguruan, gauza bat argi utzi nahi izan du: «Dispertsioaren aurkako ekitaldiak urte askotan antolatu dira Villabonako Jaietan. Jaiak beti ahalik eta giro hoberenean egiten saiatu gara; eta kanpotik hori eragoztera datorrena, ez da ongietorria herri honetan».

**» AAM-REN EGITARAUA**

**Gaur, uztailak 24**
▪ **Jaien hasieran.**
Dispertsioaren aurkako taberna eta jatetxearen irekiera. Festa guztietan zehar zabalik egongo da.

**Etzi, uztailak 26**
▪ **21:00etan.**
Dispertsioaren aurkako ekitaldia eta ondoren herri afaria Berdura Plazan.

**Uztailak 31, ostirala**
▪ **20:00etan.**
Gurea Zineman enkartelada isila: *Dispertsioari stop! Eskubide zibil eta politikoen jabe, etxera!*

# Bihar Gaztetxearen IV. urteurren pesta handia

**Leitza »** 'Urtez-urte autogestioaz sortzen eta eraikitzen' lelopean antolatu dute Atekabeltzen urteurrena.

**A. IMAZ**

Leitzako Gaztetxeak, Atekabeltzek, 4 urte bete ditu. Horren ondorioz, *Urteurren Pesta* ospatuko dute bihar. Data zehatz honen inguruko ekimenak hala eta guztiz ere hilaren 20an jarri zituzten martxan.

**Autogestioa ardatz**

Atekabeltzen funtzionatzeko modua autogestioan oinarritzen denez, antolaturiko ekitaldi ugari bide horretatik joan dira. Laugarren urteurrenaren lehen ekitaldia adibidez, afari autogestionatua izan zen.

Ospakizunen egun handia biharko izango da. 11:00etatik aurrera pestan ibiliko dira gaztetxeko kideak, baina ez hauek bakarrik, izan ere, herriko eta kanpoko jende guztia gonbidatu nahi izan dute *Urteurren Pestara*.

**» EGITARAUA**

**Bihar, uztailak 25**
▪ **11:00etan.** Txupinazoa eta brindisa.
▪ **12:00etan.** I. Binakako Frontenis Txapelketaren finala plazan.
▪ **14:30ean.** Herri-bazkaria.
▪ **16:30ean.** Argazki emanaldia.
▪ **18:00al aldera.** Elektrotxaranga.
▪ **23:00etan.** Kontzertuak: Garagardo Gura.



# Esnearen prezio «duina» eskatuz

**TOLOSA** ● EHNE eta Enba sindikatuek deituta, Iparlatek Urnietan duen fabrikara joan ziren atzo hainbat nekazari eta abeltzain, esnearen prezio duina eskatzeko. Izan ere, Europako Parlamentuko talde guztiek esne ekoizpenaren kuotak ez desagertzeko eta ekoizpena murrizteko eskatu zioten duela egun batzuk Europako Batzordeari, eta honek berriz kuotak orain igotzeko eta urte batzuk barru ezabatzeko asmoei eutsiko diela berretsi du. 50 traktore inguru atera ziren Olarrain auzotik, eta N-1 errepidea aztoratu zuten. HITZA

# Lakunzakoek botako dute gaur jaietako txupinazoa

**Villabona** » Santioek egun bat gutxiago izango dute, zazpi guztira, baina horrek kaliteateri ez diola eraginik egingo dio Udalak.

IMANOL GARCIA


Ayestaran, Izagirre, eta Mosqueira prentsaurrekoaren une batean. I. GARCIA

Gaur emango diete Santio jaiei hasiera txupinazoarekin. Aurten, jai batzordeak hala erabakita, Transportes Lakunza areto futboleko taldeak botako du txupinazoa, denboraldi honetan mailaz igo eta gero. Festen aurkezpena egin zuen atzo Villabonako Udalak eta bertan izan ziren Hautsi Izagirre eta Remi Ayestaran zinegotziak eta Joxean Mosqueira kultur teknikaria. Aurtengoan egun bat gutxiago izango du egitarauak, zazpi izango dira, astelehenean ez baita ekitaldirik egongo. Krisi ekonomikoa da murrizketaren arrazoia, baina prentsaurrekoan azaldu zutenez, «jaien kalitatean ez du eraginik izango».

Ayestaranek azaldu zuenez, «lehengo urtean jendeak zoriondu egin zuen Udala izan ziren festengatik, jai oso onak zirela esan ziguten. Zentzu horretan herritarrei esan nahi diegu, jai onak edo txarrak izatearena jendearen partehartzean oinarritzen dela. Beraz, eskatuko genuke aurten ere jendeak parte hartzea jaietan».

Mosqueirak ere jendearen parte-hartzea nabarmendu zuen: «Garrantzitsuena da, horrek ematen dio bizitasuna jaiei». Aurrekontuan murrizketak izan arren, ekitaldi kopurua ez dela murriztu azaldu zuen Izagirrek eta Mosquierak kontzertuen arloan antolatutakoa nabarmendu zuen.

### Berritasunak

Hain justu, berritasunetako bat rock maratoia izango da, hilaren 31n egingo dena. Izagirrek azaldu zuenez, «kontzertuak urtero bi egun ezberdinetan egiten ziren eta aurten jai batzordean rock maratoia egitea proposatu da. Kalean izango dira lau talde eta Erroskilaren erreketaren ondoren beste bi plazan izango dira». Mosqueirak plazan joko duten bi taldeak nabarmendu zituen, Sexty Sexers eta Esne Beltza, hain zuzen. «Uste dut lortu dugula kontzertu onak antolatzea», gaineratu zuen kultur teknikariak. «Esaterako Anje Duhalde izango da igandean. Dantzaldiak ere aipatzekoak dira, Triki Ta Ke taldea 24an, [gaur] adibidez».

Berritasunekin jarraituz, aurten zezen suzkoa berreskuratuko dute. Bestalde, emakumeen txirrindularitza proba izango da, Zizurkilgo Udalarekin batera antolatuta. Dantza sueltoko txapelketa ere izango dela-eta Gazte Asanbladakoek batukada joaz aterako direla gaineratu zuten. Sokamuturra aurten Olaederra kiroldegiaren inguruko zelaietan egingo da, Larrea zelaian aparkalekuak egiteko obretan ari direlako. Buruhandi eta erraldoien konpartsan ere berritasunak izango dira. Alde batetik, buruhandi berriak izango dira eta bestetik, txupinazoaren egunean behintzat, lau erraldoiak batera aterako dira. «Konpartsa polita izango da», azaldu du Mosqueirak.

Izagirrek zioenez, indartuta aterako dira aurten Euskal Jaia eta danborrada. Azken honetarako entseguetan parte hartzen ari den jende kopurua inoiz baino handiagoa da, 160 lagun ari baitira horretarako prestatzen. Bi ekitaldi horietan jendearen parte-hartzea ziurtatuta izango da. Beste egun berezia herritarrentzat Koadrilen Eguna izango da, hilaren 30ean. Etxeondon bazkaria egingo dute eta izena emateko aukera dago hilaren 28ra arte. Aipatzeko da lehengo urtean ia 1.300 lagun elkartu zirela bertan.

Udaletik eskerrak eman zizkieten Jai Batzordean parte hartu duten taldeei, «Udalari jaiak errazago egiten laguntzen dietelako. Bere lana benetan eskertu beharra dago», zehaztu zuen Ayestaranek.

Bestalde, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatu duen presoen dispertsioaren aurkako ekitaldiak ere izan zituzten hizpide. «Herritarrei mezu bat helerazi nahi diegu: probokaziotan ez erortzeko eta jaiak ahalik eta lasaien eta ondoen pasa ditzatela», azaldu zuen Ayestaranek.

### » GAURKO EGITARAUA

**Uztailak 24, gaur**

- **16:30ean.** Frontenis herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **17:00etan.** Pilota- Eskuz binakako herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **17:45ean.** Iraunkorrak txarangak (txupinazoaren ondoren ere herriko kaleetan zehar).
- **18:00etan.** Jaiei hasiera emango zaie txupinazoarekin. Txanpaka kirol elkarteko Transportes Lakunza taldeak botako du Erreboteko plazan.
- **18:15ean.** Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin.
- **19:30ean.** Futbito finala Erreboteko plazan.
- **21:00etan.** Afari herrikoia plazan.
- **23:00etan.** Danborrada Musika Eskolatik hasita, Iraunkorrak txarangak lagunduta.
- **00:00etan.** Dantzaldia plazan Triki Ta Ke taldearekin.

# Emakumezkoen Gipuzkoako txapela jokoan

**Zizurkil-Villabona** » Igande honetarako Txirrindularitzako 5. Sari Nagusia antolatu dute bi Udalek estreinakoz .

I. GARCIA


Larrea, Lazkano, Altuna, Izagirre eta Bidaurreta, atzo, aurkezpenan. I. GARCIA

Igande honetan, 10:00etan hasita, jokatuko da txirrindularitzako Zizurkil-Villabona 5. Sari Nagusia. Emakumeei zuzendutako proba da eta Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan. Aurtengo berrikuntza Zizurkil eta Villabonako Udalak elkarlanean aritu direla da. Zizurkiletik aterako da proba eta amaiera Villabonan izango du eta bertako Santio festetako egitarauan sartu dute. Udalez gain, Villabonako Irrintzi elkarteak eta Zizurkilgo Urkamendi elkarteak dira antolatzaileak, Asteasuko Aitzondo elkartearen laguntzaz.

Proba aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten atzo Zizurkilgo udaletxean eta bertan izan ziren Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea, Hautsi Izagirre Villabonako Kultur eta Kirol zinegotzia, Patxi Altuna Urkamendi elkarteko kidea eta Garikoitz Bidaurreta Irrintzi elkarteko kidea. Hurrengo urteetan elkarlanarekin jarraitzeko asmoa azaldu dute bi udalek.

Emakumeen txirrindulari lasterketa bultzatzea garrantzitsua dela azpimarratu zuten antolatzaileek. Gipuzkoan egiten den ezaugarri hauetako proba bakarra da eta, esan bezala, Gipuzkoako txapeldunak erabakiko dira bertan. Hiru mailatan izango da proba: kadete, junior eta elite.

Eskualdetik igaroko den zirkuitu bat egingo dute: Zizurkilgo Pasus plazatik atera eta Asteasura joango dira, itzuli eta Zizurkil Gora igo, jaitsi eta Adunako zubitik Villabona igaroko dute. Helmugak Gurea aretoaren parean izango da. Zirkuituak aurrera eginez Olaederra kiroldegi ondoko zubitik pasako dira eta handik Ubare auzoa igaroko dute eta berriro Pasus plazaraino joango dira.

Kadeteek zirkuitoari hiru itzuli egingo dizkiete. Lehenengo itzulia egiterakoan gehituko dira juniorrak eta eliteak. Kadeteak bukatuta, juniorrek eta eliteek jarraituko dute zirkuituarekin. Adunako zubia baino lehen Sorabillatik Andoain aldera joko dute eta gero Xoxoka mendatea igo. Andoainetik bueltan Villabonatik igaroko dira eta orduan izango da helmuga juniorrentzat. Elitekoek hasierako zirkuituari beste bi itzuli emango dizkiote. Kadeteek 36 kilometro egingo dituzte, juniorrek 60 kilometro eta eliteek 85 kilometro.

Kadeteetan Tolosa CF taldeko Irene Usabiaga da faborito nagusia. Juniorretan Espainiako Txapelketa izango da jokoan egun berdinean eta beraz txirrindulari gutxiago izango dira. Eliteetan Itsaso Leunda hernialdearra da faboritoetako bat.

## Iragarki laburrak

### LANA

- **Tabernaria.** Aresoko taberna batek pertsona bat behar du herriko jaietan abuztuaren 15etik 18ra lan egiteko. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 948 61 07 04.
- **Tabernaria.** Neska euskalduna behar da Ikaztegietako ostatuan lan egiteko. Interesatuek deitu 635 20 35 62ra.

TX
sarrerak
saridunak
∘ Joxe Arrospide (Villabona)
∘ Manuela Jauregi (Tolosa)
Euskal Jaieko afaria
Bildotsa burruntzian
Ekainak 25 ∘ Larunbata
21:00etan ∘ Villabonako plazan
harpidedunen TXOKOA hitza
sarrerak txarteldegian bertan izango dituzue

# FESTARAKO GOGORIK?

**Jaiak»** Datozen asteetan ez da aspertzeko betarik izango Tolosaldea nahiz Leitzaldean, hainbat herritan ospatuko baitituzte jaiak; besteak beste, ondorengoetan: Ikaztegieta, Areso, Aduna, Zizurkil, Hernialde, Goiaz, Ibarra, Larraul eta Bidanian.

**» EGITARAUAK HERRIZ HERRI**

## IKAZTEGIETAKO SANLORENTZOAK

### Abuztuak 7, ostirala, Preso eta Iheslarien Eguna

- **19:00.** Herri kirolak herriko koadrila desberdinen artean (Artano zelaian).
- **21:00.** Preso eta iheslarien aldeko afaria.
- **23:30.** Kontzertua plazan: Skaski, Pikunk eta Bazuka al bakala.

### Abuztuak 8, larunbata, Jubilatu eta Koadrilen Eguna

- **10:45.** Haurren txaranga.
- **11:00.** Txupinazoa Kultur Batzordeko emakumeen eskutik.
- **11:30-13:00.** Haurrentzako jolas parkea: puzgarriak, tren elektrikoa, zorbing-a...
- **Goizean zehar** plater jaurtiketa (entrenamendua).
- **14:00.** Jubilatuen bazkaria Elkargintza elkartean.
- **14:00.** Herri bazkaria plazan.
- **15:30-18:30.** Haurrentzako jolas parkea: puzgarria, tren elektrikoa, zorbing-a eta aparraren festa.
- **17:00.** Mus eta Toka Txapeketa.
- **18:30.** Elektrotxarangarekin herri poteoa.
- **23:30.** Urarte (Amets eta Jagoba).

### Abuztuak 9, igandea

- **11:15.** Meza.
- **Ondoren** herriko dantza taldearen emanaldia.
- **13:15.** Herriko musikarien kontzertua elizan.
- **18:30.** Zaldi karrera kiroldegiko plazan. 15 zaldi eta zaldun. Milan Telleria esatari bezala.
- **21:00.** Herri afaria mozorrotuta. Mozorrorik onenei sariak emango zaizkie.
- **23:00.** Izer , Alabier eta Lutxurdio.

### Abuztuak 10, astelehena, San Lorentzo Eguna

- **11:15.** Meza.
- **Ondoren** txakolin dastaketa.
- **17:00.** Pilota partidak.
- **20:00.** Sardin jana.
- **23:00.** Bertso saioa: Unai Muñoa, Mirari Martiarena, Manu Goyogana eta Amaia Agirre.
- **Ondoren** trikitilariak: Eneritz, Edurne eta Maddi.

## ARESO AMABIRJINAK

### Abuztuak 14, ostirala (Pesta Bezpera)

- **16:00.** Etxafuegoa pestei hasiera emateko. Ondoren kalejira egingo da herriko trikitilariekin.
- **17:00.** Haurrentzat jokuak plazan. Ondoren arratsaldekoa haurrentzat.
- **18:30.** Tortilla patata lehiaketa plazan.
- **20:30.** Herri afaria plazan.
- **23:30.** XIX. Mus txapelketa herrikoia Udaletxean.

### Abuztuak 15, larunbata (Ama Birgin eguna)

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **11:00.** Meza Nagusia, bertan udal ordezkariei lagunduaz herriko dantzariek arkua egingo dute. Ondoren ohiko hamaiketakoa eskainiko du Udalak plazan.
- **12:00.** Herriko haur eta gaztetxoek Aresoko Ingurutxoa dantzatuko dute plazan.
- **13:00.** Pilota partidak plazan.
- **18:00.** Aizkolariak plazan.
- **19:30.** Herri kirol apustu ikusgarria herriko gazte eta helduen artean. Arratsaldean zehar eta iluntzean Giro Arte dultzaineroen emanaldia plazan.
- **00:00.** Dantzaldia Unsainekin.

### Abuztuak 16, igandea

- **09:30.** Diana herriko trikitilariekin. Goiz osoan zehar herritarrek egindako eskulan erakusketa egongo da Udaletxean.
- **14:00.** .Herri bazkaria plazan Pake-Toki eta Larrea elkarteek antolatuta eta bertsolariek alaituta.
- **18:00.** Bertso-pilota partidua.
- **19:00.** VI. Sagardo dastaketa. Txistorra eta sardina erreekin.
- **Bitartean.** VII. Txapel Jaurtiketa plazan.
- **20:30.** Udaberri taldearen dantza emanaldia.
- **00:00.** Dantzaldia Imuntzo eta Beloki taldearekin.

### Abuztuak 17, astelehena (Umeen eguna)

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **10:30.** Puzgarriak, moto elektrikoak, tailerrak eta jokoak haurrentzat plazan.
- **13:00etan.** Herriko gaztetxoen arteko pilota partidak plazan.
- **16:00.** Plater tiraketa herrikoia.
- **18:00.** Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia plazan.
- **19:00.** Aizkolarien saioa plazan: Mikel Belauntzaran, Jexuxmari Mujika eta Asier Pellejeroren aurka.
- **Ondoren.** Aresoko Ingurutxoa.
- **22:00.** Ogitarteko jana plazan.
- **00:00.** Dantzaldia Gaubela taldearekin.

### Abuztuak 18, asteartea (Koadrilen eguna)

- **09:30.** Diana herriko trikitilariekin.
- **11:00.** Kalejira herrian barrena Jaiak txarangak lagunduta. Koadrilek hamaiketakoa jarriko dute herriko auzo desberdinetan.
- **15:00.** Paella erraldoia koadrila guztientzat plazan.
- **17:00.** Eskulanak umeentzat plazan.
- **17:30.** Joko ezberdinak koadrilentzat.
- **21:30.** Herri aparia plazan.
- **00:00.** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
- **Oharra.** Atsedenaldian *axuri lutoa* egingo da. Areson axuria jatea hain ohikoa denez, axuriarekin kalejira egingo da herrian barrena eta festei bukaera emateko plazan erreko da. Denei beltzez jantzita joatea eskatzen zaie.
- **Ondoren.** DJ Bertso-ren emanaldia. Egun osoa Jaiak txarangak alaituko du.

## HERNIALDEKO ANDRE MARIAK

### Abuztuak 13, osteguna

- **17:00.** Festen hasiera: Umeen txupinazoa.
- **18:00.** Frontenis txapelketa herrikoia.
- **20:30.** Txupinazoa eta suziriak.
- **21:00.** Zagi-ardoa. Jarraian Saioa eta Aitziber trikitilariak.

### Abuztuak 14, ostirala

- **11:30.** Puzgarriak goiz guztian zehar nahi adina jolas egiteko.
- **14:00.** Umeen bazkaria. Puzgarriak ere izango dira arratsalde partean.
- **18:00.** Pailazoen emanaldia. Iluntzean tortila patata lehiaketa jarraian zagi-ardoa. Afalondoan I.Mus Txapelketa herrikoia. Gauean Saioa eta Aitziber trikitilariak festarako.

### Abuztuak 15, larunbata

- **11:30.** Meza nagusia. Jarraian hamaiketako herrikoia.
- **18:30.** Herri kirolak. Herrian jaiotakoak eta herrira bizitzera etorri direnen arteko desafioa.
- **23:00.** *Ate-joka* antzerki lana ikusgai, Iker Galartza, Sara Cortazar eta Joseba Usabiagaren eskutik. Jarraian Saioa eta Aitziber trikitilariak.

### Abuztuak 16, igandea

- **11:30.** Meza Nagusia. Jarraian XVIII. Sagardo Dastaketa, Saioa eta Aitziber trikitilariek alaituta.
- Ondoren Herri bazkaria.
- **19:00.** Herriko dantzarien emanaldia. Umeen eta helduen emanaldia. Ondoren festa amaierarako trikitixa Alabier eta Saioarekin.

## ADUNAKO ANDRE MARIAK

### Abuztuak 8, larunbata

- **13:30.** Jubilatuen bazkaria trikitixarekin alaiturik.
- **18:00.** Transernio VI. esku-pilota txapelketa.

### Abuztuak 13, osteguna

- **05:30.** Oilasko biltzaileen irteera
- **12:30.** Txupinazoa. Ondoren Argazki eta marrazki lehiaketaren sari banaketa. Gero Oilasko-jokoa.
- **14:00.** Umeen bazkaria. Egun guztian zehar puzgarriak umeentzat
- **20:00.** Trikipoteoa
- **20:30.** Herri afaria. Gero, Laket.

### Abuztuak 14, ostirala

- **11:30.** Ume-jolasak
- **14:00.** Koadrilen bazkaria. Ondoren Iraunkorrak txaranga.
- **23:00.** Tximeletaren emanaldia.

### Abuztuak 15, larunbata

- **11:00.**Meza Nagusia
- **12:00.** Umeen dantza
- **12:30.** Axeri-dantza
- **18:00.**Herri Kirolak herriko gazteen eskutik.
- **22:30.** Asto-karrera. Ondoren Lain.

### Abuztuak 16, igandea

- **10:45.** Herri krosa.
- **14:00.** Txekor jatea.
- **18:00.** Toka herrikoia eta sagardo dastaketa trikitilariekin.
- **21:00.** Txekor jateko afaria
- **22:30.** Bertsolariak: Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze.

## ZIZURKILGO ANDRE MARIAK

### Abuztuak 13, osteguna

- **07:00.** Oilasko biltzaileen irteera plazatik, trikitilariek lagunduta
- **13:00.** Joxe Mari Tolosak piztuko du herriko jaiei hasiera emango dien suziria Iriarte etxeko balkoian. Ondoren, oilasko jokoaren festa eta soka dantza.
- **17:00.** Gorriti eta bere animaliak.
- **19:00.** Katerik gabeko bizikleta jaitsiera hilerritik plazara.



**Eskualdean, feste jendetsuenetako batzuk izaten dira Ibarrako sanbartolomeak.** HITZA

■ **21:00.** Herri Afaria. Ondoren, Laiotz taldearekin dantzaldia.

**Abuztuak 14, ostirala, Umeen Eguna**

■ **11:45.** Haur krosserako izen ematea.
■ **12:00.** Krossa.
■ **12:30.** Buruhaundiak eta ondoren jolasak.
■ **14:00.**Bazkaria umeentzat.
■ **15:30-19:30.**Puzgarriak: ludoteka, tobogan disney, giza futbolina.
■ **16:00.**XIX. Mus Txapelketa Zentroan, 15 euro bakoitzeko.
■ **22:00.**VII. Zimiterioko pilota txapelketaren 3. Eta 4. postuak eta finala. Preso eta errefuxiatuen gaua.
■ **23:30.** Kontzertua plazan: Erramun Martikorena eta Mikel Markez. Ondoren, Laket taldea.

**Abuztuak 15, larunbata**

■ **12:00.** Herritarren arteko herri kirol lehia: Giza proban bi talde eta Iruñeako mandoa lehian. 17:30etan, V.Trikitixa txapelketa. Ondoren sagardo dastaketa eta Lur Lan baserriko produktuen dastaketa. Bien bitartean, Seitan herriko taldeak alaituko du giroa.
■ **23:00.** Bertsolarien saio nagusia plaza berrin: Joxe Agirre, Amaia Agirre, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia. Gai jartzailea: Igotz Alkorta. Ondoren, Gabezin taldea eta Dj Bull.

**Abuztuak 16, igandea**

■ **12:00.** Herri kirolen erakustaldia. Aizkoran, Donato Larretxea eta Joseba Otaegi- Iñaki Azurmendi eta Anjel Arrospide. Harri jasotzen, Aimar Irigoien eta Sebastian Martikorena.
■ **14:30.** Jubilatu eta Herri kirolarien bazkaria. Trikitariek alaituko dute bazkalondoa.
■ **18:00.** Idi probak plaza berrin. Ondoren, barrikotea
■ Mozorro gaua: Gaia librea. 21:00etan Oilasko afari herrikoia Ondoren, gau pasa Trakets taldearekin, sari berezia emango diote mozorrorik onenari.

**GOIAZKO ANDRE MARIAK**

**Abuztuak 8, larunbata**

■ **16:00.** VII. Mus txapelketa.

**Abuztuak 14, ostirala**

■ **14:00.** Suziriak eta Ezkirlak.
■ **17:00.** Ume jolasak eta ondoren txokolatada.
■ **19:00.** Poteo herrikoia karrozan.
■ **21:00.** Herri afaria Maialen Lujanbiok eta Sebastian Lizasok alaituta. Ondoren Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

**Abuztuak 15, larunbata**

■ **11:00.** Meza nagusia.
■ **Ondoren.** Helduentzat hamaiketakoa.
■ **12:00.** Pilota partidak.
■ **19:00.** Sagardo dastaketa, trikitilari eta bertsolariekin alaitua.
■ **22:30ean.** Bertsolariak: Andoni Egaña, Sustrai Colina, Amets Arzallus eta beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Jon Agirresarobe.
■ **Ondoren.** Bide Batezen emanaldia.

**Abuztuak 16, igandea**

■ **12:00.** Meza nagusia.
■ **Ondoren.** Herriko dantzariak lehedabizi eta poteo herrikoia
■ **19:00.** Herri kirolak. Nazabal eta Olasagasti aizkolariak; Irigoien eta Ostolaza harri-jasotzaileak eta herriko gazteak.
■ **22:30.** izer, Aladier eta Lutxurdixo trikitilariak.

**IBARRAKO SANBARTOLOMEAK**

**Abuztuak 21, ostirala**

■ **11:30.** Hamaiketakoa San Bartolome plazan.
■ **11:45.** Haurren eta gaztetxoen koadrilak plazan elkartuko dira.
■ **12:00.** Jaien hasiera: Sendi-Ekintza elkartearen eskutik suziri jaurtiketa eta erraldoien eta buruhandien irteera. Koadrillen kalejira txarangarekin eta Loatzo Musika Eskolako dultzaina ikasleekin.
■ **14.30.** Haurrentzako eta gaztetxoen koadrilen bazkaria..
■ **16:30.** Haurrentzako eta gaztetxoentzako tailerrak eta batukada Trisketa taldearen eskutik San Bartolome plazan (Belabieta kiroldegian euria eginez gero).
■ **23:30.** Amaiur taldearekin dantzaldia San Bartolome plazan.

**Abuztuak 22, larunbata, Kirolaren Eguna**

■ **09:00.** Diana herriko trikitilarien eskutik.
■ **10:00-17:30.** Haurrentzako eta gaztetxoentzako 3x3 futbol txapelketa San Bartolome plazan (Belabieta kiroldegian euria eginez gero).
■ **11:00.** Erretiratuentzako hamaiketakoa Bizi-Nahi elkartean.
■ **11:30.** Toka eta Bola Txapelketa Emeterio Arrese parkean.
■ **12:00.** Pintxo dastaketa eta Araba-Errioxako ardoaren dastaketa San Bartolome plazan.
■ **12:30.** Herri-kirolen erakustaldia: Otaño eta Mujika aizkolariak, tartean Belauntzaran eta Agirre gazteak, eta Aimar Irigoien eta Joxe Ramon Iruretagoiena harrijasotzaileak. San Bartolome plazan ariko dira eta euria eginez gero Belabietan.
■ **16:00.** Gazteentzako txirrindularitza-lasterketa, XXVIII. San Bartolome saria.
■ **17:00.** Pilota partidak Belabieta kiroldegian.
■ **18:00.** Xake-gunea: bat bateko xake partiden erakustaldia, mini ikastaroa, xake erraldoia... San Bartolome plazan (Belabieta kiroldegian euria eginez gero).
■ **23:00.** Adinekoentzat Los Rubi taldearen dantzaldia Emeterio Arrese parkean.
■ **23:00.** Lain taldearen kontzertua San Bartolome plazan.
■ **00:00.** Trakets taldearen dantzaldia San Bartolome plazan.

**Abuztuak 23, igandea**

■ **09:00.** Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
■ **11:00.** Meza, ondoren San Bartolome bezperako salbea.
■ **11:30.** Herri-antzerkia: *Ibarrako Eskola* herriko kaleetan zehar.
■ **14:30.** Txekor jatea Uzturpe ikastolan.
■ **16:00.** Haurrentzako *Jokalata* jokuak Trisketa taldearen eskutik, San Bartolome plazan eta Belabietan euria eginez gero.
■ **19:00.** San Bartolome bezperako kanpai-jotzea.
■ **19:30.** Sokadantza San Bartolome plazan.
■ **22:30.** Alurr Dantza Taldearen *Sua* emanaldia Emeterio Arrese parkean, euria eginez gero bertan behera utziko dute ikuskizuna.
■ **00:00.** Laiotz taldearen dantzaldia San Bartolome plazan.

**Abuztuak 24, astelehena, San Bartolome Eguna**

■ **09:00.** Diana herriko trikitilarien eskutik.
■ **10:30.** Meza nagusia San Bartolome elizan.
■ **11:30.** Haurren danborrada Koxkola txarangak alaituta.
■ **12:00.** Piparrak eta tomateak San Bartolome plazan, herriko baratzazainek, Zubelzu Piparrak etxeak eta Piparra Kooperatibak eskaini eta zerbitzatzua.
■ **13:00.** Emeterio Arrese XXI. Literatur Lehiaketaren eta San Bartolome bozeto lehiaketaren sari banaketa Udal Batzar Aretoan.
■ **16:30.** Haurrentzako meatzarien jokoak Kulki taldearen eskutik San Bartolome plazan (Belabietan euria eginez gero).
■ **20:00.** Bertsolarien emanaldia: Andoni Egaña, Jon Maia, Beñat Gaztelumendi eta Oihane Perea. Gai-jartzailea: Unai Elizasu. Emeterio Arrese parkean izango da (Belabietan euria eginez gero).
■ **22:30.** 20+Hatz taldearen kontzertua Emeterio Arresen (Belabietan euria eginez gero).
■ **00:00.** Trikizio taldearen dantzaldia San Bartolome plazan.

**Abuztuak 25, asteartea, Koadrilen Eguna**

■ **09:00.** Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
■ **11:30-13:30.** Gaztetxoentzako parkea: Jumping, quads pista, zezen mekanikoa eta giza futbolina Emeterio Arrese plazan (Belabietan euria egiten badu).
■ **11:45.** Koadrilak San Bartolome plazan elkartuko dira.
■ **12:00.** Koadrilen kalejira The Jones Brothers eta Koxkola txarangekin eta Giroarte dultzaina taldearekin batera.
■ **14:30.** Koadrilen zikiro-jatea, Uzturpe Ikastolan.
■ **15:30-18:30.** Gaztetxoentzako parkea: Jumping, quads pista, zezen mekanikoa eta giza futbolina Emeterio Arrese parkean (Belabietan euria egiten badu).
■ **00:00.** Osasun etxetik San Bartolome plazaraino piperra erretzeko prozesioa egingo dute eta ondoren, piperra erreko dute.
■ **01:00.** Imuntzo eta Beloki musika taldearekin dantzaldia plazan goizaldera arte.

**IBARRAKO BARTOLOAK**

**Abuztuak 20, osteguna**

■ **17:30.** Txupinazioa herriko plazan. Bartolaren jaitsiera, ume jolasak eta txokolatada.
■ **20:00.** Manifestazioa plazatik: *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean.
■ **21:00.** Afari herrikoia.
■ **Ondoren** kontzertua Gaztetxean Kop taldearekin (Paissos Catalans).

**Abuztuak 21, ostirala**

■ **16:00.** Ume moto festa herrian zehar Bartolaren eta dultzaineroen laguntzarekin.
■ **Ondoren** plazan ume jolasak, Atarrabiako (Nafarroa) titiriteroak eta zaldigurdia izango dira plazaldean umeei birak emanaz.
■ **18:30.** Helduen danborradako entsegu bakarra plazan (jantzita joan behar da).
■ **20:00.** Afaria elkarteetan.
■ **22:30.** Helduen danborrada.

**Abuztuak 22, larunbata**

■ **15:30.** Kiroldegian helduen eskalada txapelketa egingo dute.
■ **18:00.** Bartola gunean nesken sokatira desafioa: Ibarra Vs. Tolosa.
■ **19:30.** Mikel Laboaren omenez kantaldia; Gartxot eta Imanol bakarlariak.
■ **23:00.** Zezen suskoa.

**Abuztuak 23, igandea, Nazioa gara, geurea ikurrina**

■ **11:00.** Pirata goiza plazan; haur jolasak: altxorraren bila.
■ **12:00.** Sagardo dastaketa eskualdeko sagardotegien eskutik Bartola gunean.
■ **13:00.** Ikurrinari omenaldia.
■ **17:00.** Bertso Pelota Belabieta frontoian.
■ **19:00.** Plazan patata tortila eta edari dastaketa txapelketa.
■ **Ondoren** kantu afaria.
■ **23:00.** Gaztetxean kontzertuak: Lor eta Numen planet taldeen eskutik.

**Abuztuak 24, astelehena**

■ **Eguerdian** bla-bla-bla-blanako dantza.
■ **17:00.** Gipuzkoako Harrizulatzaileen I. Txapelketa.
■ **19:00.** Kantaldia Bartola gunean: Anje Duhalde eta Xantos.

**Abuztuak 25, asteartea**

■ **Eguerdian** Bartolaren paseoa, herriko koadrilekin.
■ **18:00** Erromeria Bartola gunean: Laja II ta Narbaiza.
■ **23:00** Elektrotxaranga.
■ **00:00** Dj Bull musika jartzen, Gaztetxean.
■ **00:30** Bartolaren igoera eta jaien amaiera.

**LARRAULGO SANBARTOLOMEAK**

**Abuztuak 23, igandea**

■ **16:00.** Pala txapelketa

**Abuztuak 24, astelehena**

■ **11:00.** Meza Nagusia.
■ **11:30.** Txirrindulari igoera
■ **12:00.** Hamaiketako herrikoia Katillutxulo Elkartean.
■ **13:00.** Ahari jokoa
■ **18:00.** Idi probak
■ **20:00.** Erromeria Solano eskolakoak.
■ **22:30**. Dantzaldia URARTE taldearekin.

**BIDANIAKO SANBARTOLOMEAK**

**Abuztuak 21, larunbata**

■ **12:00.** Suziriak eta ezkirlak jaiei hasiera emateko.
■ **12:00.** Zezen txikiak.
■ **20:30.** Herri afaria.
■ **22:30.** Pilota partidak.
■ **Ondoren.** Bide Batez.

**Abuztuak 22, igandea**

■ **10:30.** Meza Nagusia.
■ **Ondoren.** XXV. Herri Krosa.
■ **17:00.** Zaldi karrera (eguraldi txarra eginez gero, ez da izango).
■ **18:00.** Herriko gazteen herri kirolak.
■ **Ondoren.** Sagardo eta pintxo dastaketa.
■ **22:30.** Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso. Gai-Arkaitza Zelaia.
■ **Ondoren.** Imuntzo eta Beloki.

**Abuztuak 25, asteartea**

■ **11:00.** Meza Nagusia.
■ **Ondoren.** Bola eta toka txapelketa eta helduentzako hamaiketakoa Saiaz elkartean.
■ **16:30.** Ume jolasak eta txokolatada.
■ **22:30.** Idi parea eta zaldiaren erakustaldia.
■ **Ondoren.** Jaiei amaiera emango die Kupela taldeak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**2009-07-24 Eguraldia**

| | Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar |
|---|---|---|---|---|
| | | | 24° / 11° | GOIZA: EGUZKIA; ARRATS.: EGUZKIA; BEROENA: 26°; HOTZENA: 13° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# A Agenda

## Jaiak
▪ **Villabona.** Santio jaiak: Iraunkorrak txaranga 17:45ean, txupinazoa 18:00etan, erraldoi eta buruhandiak 18:15ean, futbito finala 19:30ean, afari herrikoia 21:00etan, danborrada 23:00etan eta Triki take 24:00etan.

## Azoka
▪ **Tolosa.** Aste honetan Tolosako azoka ez da larunbatean izango, jaia delako. Beraz, gau goizean izango da.

## Zinema
▪ **Tolosa.** *Ice age 3* filma Leidor aretoan gaur eta bihar 19:30ean eta igandean 17:00etan.

## Deialdiak
▪ **Tolosa.** Herriko kirol elkarteek urteroko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago hilaren bukaera bitarte. Informazioa, udaletxean, kirol batzordean.
▪ **Tolosa.** Udako liburutegia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara bitarte.

## Mendi irteerak
▪ **Tolosa.** Hilaren 31rako Encantats-Pegueira mendi irteera antolatu dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa, *www.zazpitantriangulon.com*. Izen-ematea, 688 698642 telefono zenbakian.

## Erakusketa
▪ **Hernialde.** Maider Oviedoren argazki erakusketa herriko ostatuan.
▪ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa eta Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aranburu Jauregian.
▪ **Tolosa.** Itziar Albisuaren koadroak Lanbroa tabernan.

## Ikastaroak
▪ **Lekua.** TAKek arraun ikastaroa antolatu du abuztuko hamabostaldirako. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

## » GUARDIAKO FARMAZIAK
▪ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.
▪ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
▪ **Irurtzun.** Gastearenna, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Larraizko informazio gunea, zabalik

**ABALTZISKETA** ● Informazio puntu berria ireki dute Larraitzen. Atzo egin zuten aurkezpen ekitaldia, Goierri eta Tolosaldea eskualdeen arteko elkarlanak bultzaturik. Esan bezala informazio puntu hau atzo inauguratu zuten eta abuztuaren 23ra arte egongo da zabalik, turistei bi eskualdeen inguruko informazio zabala eskaintzeko. Goierri eta Tolosaldea eskualdeetako alkateak, turismoko ordezkariak eta Agustin Arostegi, Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria egon ziren. IÑAKI GURRUTXAGA / GOIERRIKO HITZA

KM kulturunea
Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
**programazioa@gipuzkoa.net**
**www.gipuzkoa.net/kultura**

ERAKUSKETAK

**Ganbaran**
Ricardo Ugarte
**ITSAS-BURNI**
Uztailaren 1etik irailaren 5era


Hondatu gabe bizi

**Erakustaretoan**
Pello Irazu
**Hondatu gabe bizi**
Uztailaren 2tik irailaren 26era

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
Bisitaldi gidatuak: kmk@komazk.com
Tel. 943 112 756 / 667 346 025

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua

## » Publierreportajea

# Uliako aterpetxea, lasaitasuna hirian



Donostiako Uliako aterpetxea familiak hartzeko prestatuta dago.

Estresetik atseden hartu eta naturan murgiltzeko aukera paregabea da Uliako aterpetxea. Donostiako mendiaren gainaldean dago eta hiriaren ikuspegi panoramiko zoragarriak eskaintzen ditu. Tranbia zaharraren ibilbidearen ondoan, oinez nahiz bizikletan ibiltzeko parada izango du erabiltzaileak.

Tranbia Konpainiak XX. mendean sortutako jatorrizko eraikinak su hartu zuen 2006an. Ezbeharra baliatu dute egungo tendentziak jarraituz, eraikuntza eroso eta modernoa egiteko. Eraikina solairu bakarrekoa denez, logela guztietatik zuzenean irten daiteke kanpora, erabiltzaileen erosotasuna, intimitatea eta autonomia handiagotuz. Horretaz gain, beste zerbaitetan ere egiten du Uliako aterpetxeak azkeneko eraikuntza teknikekin bat. Izan ere, modulo fotoboltaikoak eta eguzki plakak erabiltzen baititu energia iturri gisa, ingurunea zaintzeko ahaleginean.

Erabiltzailearen ongizatea ardatz hartuta, eraikin berria diseinatzeko garaian arduradunek logela kopurua ugaritu dute eta hauen tamaina txikiagotu. Modu horretan, pilaketak saihestea eta lasaitasuna areagotzea lortu dute.

### Familientzako gune egokia

Donostiako Udalak kudeatzen duen beste aterpetxeak ez bezala, urte osoa irekita dagoen Uliako honek, sendiak eta taldeak ditu gogoan. Honen adibide, ekipamenduak dituen bungalowak dira. Hau da, apartamendu gisa erabil daitezkeen sukalde txikiekin hornitutako logelak.

Uliako aterpetxeko prezioak 13,60eurotik 22 eurora bitartekoak dira gau bakoitzeko eta 30 urtetik beherako pertsonek deskontuak dituzte. Tarifa eta zerbitzuen inguruko informazioa jasotzeko, *www.donostialbergues.org* web orria konsultatu.

## » JAKINGARRIAK

▪ **Goi-denboraldia.** Apirilaren 3tik urriaren 11ra (igandetik ostegunera ezik) eta irailaren 18tik 26ra (Zinemaldia)
▪ **Behe-denboraldia.** Urriaren 12tik apirilaren 2era (irailaren 18tik, 26ra ezik).
▪ **Logela kopurua.** 62.
▪ **Web gunea.** *www.donostialbergues.org*.
▪ **Erreserbetarako e-maila.** ulia@donostia.org.
▪ **Telefonoa.** 943-48 34 80 / 943-31 02 68.

**Gehigarri berezia.** 2009ko uztailak 24. **Testuak:** Eneritz Iraola

# Villabonako santioak 09

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

## SANTIOEN...







## ...ATARIAN

informazioa h

**Langileen udako oporraldia dela-eta**

HITZAren azken alea uztailaren 26an argitaratuko da. Egunkaria berriro izango da zuen etxeetan irailaren 2an.

i

**HITZA**ri buruzko informazioa


[MUGARIK GABEKO GARRAIO BEREZIA]

SMG san migel garraioak

1kg... 25tn.

GARRAIO INDUSTRIALA

Kale Nagusia, 14 - 2.ezk.
20271 IRURA (Gipuzkoa)
**T.** 943 691 418
**M.** 669 871 955
www.**sanmigelgarraioak**.com

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Ikastolaren eskaintza
- Irakatsi
- Hezi
- Pertsona osatu



Ikastolak festa alaiak igaro ditzazuen opa dizue guztiei! Gora Santioak!

# BADAGO NON AUKERATU!

» EGITARAUA EGUNEZ EGUN



Plazak jai giroa biltzen du beti santioetan; kalejirak eta ume jokoak ohikoak izaten dira bertan. I. GARCIA

**Uztailak 24, gaur**

- **16:30ean.** Frontenis herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **17:00etan.** Pilota- Eskuz binakako herriko txapelketaren finala Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **17:45ean.** Iraunkorrak txaranga (txupinazoaren ondoren ere herriko kaleetan zehar).
- **18:00etan.** Txupinazoa Txanpaka kirol elkarteko Transportes Lakunza taldearen eskutik Errebotekο plazan.
- **18:15ean.** Erraldoi eta buruhaundien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin.
- **19:30ean.** Futbito finala Errebotekο plazan.
- **21:00etan.** Afari herrikoia plazan.
- **23:00etan.** Danborrada Musika Eskolatik hasita, Iraunkorrak txarangak lagunduta.
- **00:00etan.** Dantzaldia plazan Triki take taldearekin.

**Uztailak 25, bihar (Santio eguna)**

- **08:00etan.** Diana-kalejira Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
- **09:00etan.** Sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
- **11:00etan.** XXIX. Herri krosa Altzineko plazatik, Zunbeltz elkarteak antolatuta. 11:00etatik aurrera Benjaminak eta alebinak. 11:30tik aurrera infantilak, kadeteak, jubenilak eta helduak.
- **11:30ean.** Meza Nagusia parrokian.
- **12:00etan.** *Ludijaia*, haurrentzako jolasak: trebetasuna, punteria, buru-argitasuna, mahaikoak, eta abar, Txistularien plazan.
- **12:30ean.** Udal korporazioaren urteroko bisita Santiago egoitzara Lizarrako musika bandak lagunduta.
- **13:15ean.** Lizarrako musika bandaren emanaldia Plazan. EUSKAL JAIA herriko plazan
- **17:00etan.** Zanpantzarrak herrian zehar.
- **17:30ean.** Soka dantza Errebotekο plazan, Villabonako Oinkari dantza taldearen eskutik.
- **18:00etan.** Sagardo eta pintxo dastaketa.
- **18:30ean.** *Herria Kantuz*-ekin abestiak.
- **19:30ean.** Erromeria Landa aitasemeak.
- **21:00etan.** Afaria: bildotsa burruntzian.
- **23:00etan.** Afaria alaitzeko Isk&bila txaranga.
- **00:00etan.** Trikiti gaua: Laja eta Mikel.
- **01:30ean.** Astiasaran anaiak.
- **03:00etan.** Imuntzo eta Beloki.

**Uztailak 26, igandea (Santana eguna)**

- **08:00etan.** Diana-kalejira Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
- **09:00etan.** Sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
- **09:00etan.** Plater tiraketa Izaren, Loatzo Tiro elkartearen eskutik.
- **10:00etan.** Neska txirrindularien Zizurkil-Villabona V.Sari nagusia. Gipuzkoako txapelketa. Mailak: kadete, junior eta elite. Irteera 10:00etan Zizurkilgo Pasus plazatik eta 13:00ak aldera iritsiko dira Villabonako kale Berrira. Helmuga Malkar plazan.
- **10:00etan.** Xake jokoa Bearzana pilotalekuan, Billabona xake joku elkartearen eskutik.
- **11:00etan.** Haurrentzako tailerrak Txistularien plazan: globoflexia, zeramika, hormairudi-kolasa, txikientzako txokoa...
- **11:30ean.** Errebotekο Villabonako txapelketaren finala, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **17:00etan.** Erraldoi eta buruhaundien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin.
- **18:00etan.** Villabonako Oinargi dantzari txikien emanaldia Arroan.
- **19:20ean.** *Atari bizi* lehiaketaren sarien banaketa Arroan.
- **19:30ean.** Gazte mailako dantza suelto txapelketa, Oinkari dantza taldeak eta Gipuzkoako Euskal dantzarien biltzarrak antolatuta.
- **22:30ean.** Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia Gurea Zineman.
- **23:30ean.** Anje Duhalderen kontzertua plazan.
- **01:30ean.** Gatxet Dj disk-jokey plazan.

**Uztailak 28, asteartea**

- **11:30ean.** Haur jaialdia Bearzana pilotalekuan: *Musika tresnen fabrika.*
- **12:00etan.** Onddo Batukada herrian zehar.
- **14:00etan.** Bazkaria Berdura plazan, Onddo Gazte Asanbladak antolatuta.
- **17:00etan.** Orkestra Nazional taldearekin poteo-kalejira. Ondoren afari-merienda plazan.
- **18:00etan.** Joko-Garbi partiduak. Kadeteak (Villabona – Oiartzun) eta Iparraldeko pilotariak Plazan, Behar-Zana elkartearen eskutik.
- **18:00etan.** Txan magoaren emanaldia Gurea zinean.
- **19:00etan.** Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin.
- **19:30ean.** Txekor jatea eta sagardo dastaketa Txermingo ikastolaren azpian, Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **21:00etan.** Kontzertua Impecables taldearekin herriko plazan.
- **22:30ean.** *Nosotras* antzezlana Gurea zineman Hutsunea Betez taldearen eskutik.
- **00:00etan.** Dantzaldia plazan Joselu Anaiak taldearekin.

**Uztailak 29, asteazkena**

- **11:00etan.** Biltoki jubilatu taldearen eta Santiago egoitzako aitonamonen Eskulanen erakusketa Berdura plazan.
- **11:30ean.** Haur jaialdia: Apar Festa Arroan.
- **12:00etan.** Meza Nagusia parrokian.
- **14:00etan.** Jubilatuentzako bazkaria Txermin ikastolaren azpian.

EKO-TOLOSA
FRUTATEGIAK
ondo pasa santioak!
www.ekotolosa.com
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona

MIRARI Parafarmazia
* HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENEA
* HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENEA
* HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA
Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351• parafarmazia.mirari@telefonica.net

MIGUEL-MARU
FRUTATEGIA
Santioak ondo pasa!
Kale Berria, 13 • BILLABONA
943 69 21 50

Itzalpe
Edaritegia - Jatetxea
Festak ondo pasa!
Berria, 29 • Billabona • Tel. 943 69 06 23

BRONTXILLO Harategia • Arraindegia
943 69 68 23
Santio, 4
Villabona
Santioak ondo pasa!



Iaz Hutsunea Betez elkarteko ordezkariek bota zuten txupinazoa. I. GARCIA

■ **15:30ean.** Gatxet DJ (Disk-jokey) Txermingo ikastolaren azpian.
■ **16:00ean.** Mus txapelketa herrikoia Berdura plazan.
■ **17:00etan.** Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako dultzaineroekin.
■ **18:00etan.** Haurrentzako Euskaraokea Arroan.
■ **18:00etan.** Palaz binakako herriko txapelketaren finala Beharzana pilotalekuan, Behar–Zana elkartearen eskutik.
■ **18:30ean.** Pilota. Eskuz binakako afizionatuen finala Beharzana pilotalekuan, Behar–Zana elkartearen eskutik.
■ **19:30ean.** Abiba disko festa Plazan
■ **22:00etan.** Oinkariren dantza emanaldia Arroan.
■ **00:00etan.** Abiba disko festa Plazan.

### Uztailak 30, osteguna

■ **13:00etan.** Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik, Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilariekin.
■ **14:30ean.** Koadrilen arteko bazkaria izango da Etxeondon. Ondoren kalejira Incansables txarangarekin.
■ **20:00etan.** Dantzaldia plazan Bide Batez taldearekin (21:30ak arte).
■ **22:30ean.** Bertsolariak Arroan Zunbeltz elkartearen eskutik. Amaia Agirre / Jesus Mari Irazu / Maialen Lujanbio / Aitor Mendiluze.Gai-jartzailea : Jon Zaldua.
■ **00:00etan.** Zezensuzkoa plazan.
■ **00:00etan.** Dantzaldia plazan Bide Batez taldearekin.

### Uztailak 31, ostirala (San Inazio eguna)

■ **08:00etan.** Diana-kalejira «Loatzo Musika Eskolako» dultzaineroekin.
■ **09:00etan.** Sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
■ **10:15ean.** Haurrentzako sokamuturra Olaederra kiroldegiaren ondoan, Loatzo Musika Eskolako dultzaineroek alaituta.
■ **11:30ean.** Haur jolas parkea Txistularien Plazan (bi puzgarri + zezen mekanikoa + ludoteka + txu -txu trena + Jumping).
■ **11:30ean.** Errebotea plazan: Hazparne-Villabona.
■ **16:00etan.** Txirrindulari lasterketa Irrintzi elkartearen eskutik: Eroski parean irteera eta helmuga.
■ **17:30ean.** Haur jolas parkea Txistularien Plazan (bi puzgarri + zezen mekanikoa + ludoteka ,..).
■ **18:00etan.** Herri kirolak lehiaketa Plazan: Amasa - Villabona / Asteasu.
■ **19:00etan.** Rock maratoia Gudari Plazan: Skastyk, Disorders, Zura eta Funtastic Planet. Barra, animazioa eta hainbat sorpresa! Ondoren: Onddo Batukada-ren kalejira plazara.
■ **00:00etan.** Erroskilaren errausketa plazan.Ondoren kontzertuak plazan: Sexty Sexers eta Esne Beltza.

E **Elkarrizketa**

**IÑAKI OTAÑO ›** Transportes Lakunzako entrenatzailea

# «Herriaren aurrean horrela azaltzeak poza ematen du»



ENERITZ IRAOLA

**Txupinazoa »** Transportes lakunza areto futbol taldeko jokalariek botako dute jaiei hasiera emango dien suziria; gaur arratsaldeko 18:00etan Erreboteko plazan.

Iñaki Otaño (Zizurkil, 1985) Transportes Lakunza areto futbol talde billabonatarraren entrenatzailea da. Aurten, Euskal ligatik Nazional B mailara igo dira Euskal ligan bigarren postua lortu ostean. Hori dela eta, beraiek izango dute gaur arratsaldean Villabonako festei hasiera emango dien txupinazoa botatzeko ardura.

**Zer suposatzen dizu txupinazoa botatzeak?**
Nire ustez polita da. Herriaren aurrean horrela azaltzeak poza ematen du. Berri on batengatik da gainera. Taldeak hamar urte daramatza dagoeneko eta azken hiru urteetan lortu du indar handiena. Herriari begira polita iruditzen zaigu. Txupinazoa herriak egiten digun omenaldi txiki bat bezala ere bada.

**Zerbait berezia prestatu al duzue gaurko?**
Bai, horretan gabiltza. Sorpresaren bat egongo da. Ez dugu ohiko txupinazoa egin nahi eta jendeari egingo duguna gustatuko zaiola iruditzen zaigu.

**Duela zenbat urte hasi zinen entrenatzaile lanetan?**
Hiru urte daramatzat entrenatzaile lanetan eta bera postu horretan dagoenetik bi aldiz igo dira mailaz. Hala ere, datorren urtean ez naiz entrenatzaile ofiziala izango. Baina inguru horretan egongo naiz beti. Entrenatzaile postua utzi eta ordezkari lanetan ariko naiz.

**Zer suposatzen du maila aldaketak?**
Aldaketa handia da eta gogor hartu beharko diogu. Entrenamenduak ere gehiago egin beharko ditugu. Hasiera batean astelehena eta asteazkenetan egiten genituen. Orain berriz, asteartea, osteguna eta ostiralean egingo ditugu. Azkenean erantzukizuna ere eskatzen du, maila altuagoko aurkarien kontra ariko baikara.

**Zer moduz joan da denboraldia?**
Aurten oso ondo. Hasiera-hasieratik lehendabiziko postuetan ibili gara. Baina azken mementoan larri ibili ginen, bost partida falta zirela hiru galdu genituen. Orduan larritu ginen. Ez ginela igoko ere pentsatu genuen. Baina azkeneko biak irabazi eta igotzea lortu genuen.

**Taldean jende berria sartzeko asmorik ba al duzue?**
Bi gazte sartu ditugu dagoeneko, gure filialean zeuden bi mutil. Horiek goiko mailan jokatuko dute. Agian beste fitxajeren batzuk ere egingo ditugu.

**Eskualdeko derbia ere izango dugu hurrengo urtean, Laskorain taldearen aurka jokatuko baituzue.**
Bai eta pozgarria da. Lehia polita egongo da.Maila horretan gipuzkoar gehiagoren aurka ariko gara, hamasei taldeetatik hamaika gipuzkoarrak izango baikara. Orain arte Bizkaian jokatu behar izaten genituen partida gehienak.





PELU
Ileapaindegia - estetika
Errota 1 behea esk.
VILLABONA • Tel.: 943 696 292

OGI-GOXO
Okindegi eta Gozotegia
jai zoriontsuak pasa!
Kale Nagusia, 26
Tel.: 943 69 32 94
Billabona

MAITE
JANARIDENDA
Kalitatezko frutak eta berdurak
Ondo pasa jaietan!
Kale nagusia, 11 • Villabona
Tel.: 943 69 18 22

Nahikide
Tel.: 943 69 64 84
Faxa: 943 69 33 59
Larrea auzoa, 8
20150 BILLABONA
Santioak ondo pasa!

Janari Denda
Pepi
Jai zoriontsuak pasa!
Berria, 56
BILLABONA
Tel. 943 69 16 38
Etxeko
Barazki eta Fruituak

Bihar izango da Euskal Jaia herriko plazan, 'Herria kantuz' izango da aurtengo berrikuntza eta trikitia nagusituko da gauean. Dantza emanaldia eta dantza suelto txapelketa ere antolatu dituzte.

# Oinkari ere festaren parte

Oinkari dantza taldekoek Villabonako festen egitarauaren zati garrantzitsua betetzen dute. Dantza taldea dira bai, baina dantza ez da festetan egiten duten gauza bakarra. Urtez urte ekitaldi askoren ardura hartu dute bere gain. Aurten hiru ekitaldi antolatuko dituzte: Euskal Jaia, gaztetxoenen dantza suelto txapelketa eta Oinkarikoen dantza emanaldia.

Eneko Arteaga dantzariak adierazi duenez «Euskal Jaia izango da ekitaldirik indartsuena». Duela lau urte hasi ziren santioetan Euskal Jaia antolatzen. Euskal giro herrikoi bat sortzeko asmoarekin abiarazi zuten ekimena festetako ardatz bilakatu da dagoeneko. Azken urteetan galtzen joan den erromeri giroa berreskuratzeko ahalegina egiten dute. Horretarako, arratsaldean hasi eta goizaldera arte luzatzen den jaia prestatzen dute Oinkarikoek.

**Euskal Jaia**

Zanpantzarrekin hasiko da jaia. Villabonako herri guztian zehar binakako ilara osatuta mugituko dira joaldunak, jai giroa iragarriz. Ondoren, Soka dantzaren txanda izango da. Oinkari dantza taldeko mutilek egin ohi duten dantza honek urte askotako historia du. Santio egunez egin ohi da eta aurten euskal jaiarekin batera egokitu denez, honen egitarauaren barruan sartu dute.

Dantzak ikusi ostean, barrena betetzeko garaia helduko da eta izango da horretarako aukera sagardo eta pintxo dastaketan. Oinkari Dantza Taldekoek Beharzana, Irrintzi, Uxo-toki eta Zunbeltz elkarteekin batera antolatu ohi dute. Mota askotako pintxoak eta sagardotegi ezberdinetako sagardoaz gozatzeko aukera izaten du Errebote plazara bertaratzen denak.

Kataluniako Colla Vella castells taldekoen bisita izan zen iazko berrikuntza. Aurten berriz, *Herria Kantuz* izango da berezitasuna. Iazko abenduan martxan jarritako herri ekimena da. Euskal abesti ezagunak kalez kale kantatzen ibili dira urtean zehar egin dituzten saioetan. Euskal jaia ere horretarako egun aproposa iruditu zaie. Horregatik, sagardo eta pintxo dastaketako garaian, postu batetik bestera kantari ibiliko dira.

Ez da eguneko musika bakarra izango. Erromeri giroa jarriko baita plazan, horretarako bi ikuspegi eman nahi izan dizkiote. Batetik, arratsalde partean Landa aita-semeen aho soinuaz gozatzeko aukera izango da. Bestetik, trikitixari garrantzia handia eman diete. Izan ere, trikiti gaua antolatu dute; Laja eta Mikel, Astiasaren anaiak eta Leire eta Imuntzo eta Belokiren erromeriaz gozatzeko aukera izango da. Arratsaldeko erromeriaren ostean afariaren garaia izango da. Azken urteetan bezalaxe bildotsa burruntzian dastatzeko aukera izango da. Isk&bila txaranga lizartzarrak girotuko du afaria. Garaiko jantziak eramateko deia luzatu dute Oinkarikoek.

**Bikote gazteen dantza suelto txapelketa, estreinakoz**

Aurten lehenengoz, bikote gazteen dantza suelto txapelketa antolatu dute Gipuzkoako dantzarien biltzarrarekin batera. Euskal Herriko herri ezberdinetako hamalau bikote aurkeztuko dira, hamasei urtez azpikoak guztiak. Oinkaritik lau bikotek hartuko dute parte. Maila handiko dantzariak ikusiko ditugu, bikoterik trebeena izateko lehian.






Iaz bezala (goian), zanpanzarrak izango dira Euskal Jaian; behean Gazteen dantza suelto txapelketako irudia. HITZA

**Oinkari Dantza taldea eta eskolaren erakustaldia**

Oinkariren oraina eta geroa, biak batera ikusiko ditugu oholtza gainean. 240 dantzari eta 7 musikari izango dira zuzenean . Urte osoan egindako lana erakutsiko dute. Batzuek, urte asko daramatzate dantza taldean, besteak berriz gaztetxoagoak dira. Dantzak batzen dituzte biak. Jaietako klasiko bihurtu da dagoeneko dantza saio hau.

Festetako antolakuntza lanez gain, bestelako proiektuetan ere murgilduta daude dantza taldekoak. Olaztin Baionan, Ondarrun... izango dituzte emanaldiak. Horrez gain, Murtziara ere bidaiatuko du helduen taldeak bertako jaialdi batean parte hartzeko.Bestalde, Korrontzi musika taldearekin ere bira batean parte hartzen ari dira. Euren musikari dantzak jarriz. Lortutako arrakasta ikusita saio gehiago ere egingo dituzte.



Urte osoan egindako lana erakutsiko dute Oinkarikoek emanaldian. HITZA

DESACRISTAL
Autoarentzako kristalgintza
Muntaia, salmenta eta konponketak
Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa
Baimendutako laminen instalazioa
SOLAR-CHECK
Ibaiondo bailara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepidea - IRURA
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

MAPFRE
ASEGURAMOS SU CALIDAD DE VIDA
Santioak ondo pasa!
K/Berria, 15 • Villabona
Tel.: 943 69 22 19

informazioa h
HITZAren harpidedun egiteko:
902-82 02 01
hitza@harpidetza.info
egunkaria buzoian, zozketak eta deskontuak, promozioetan abantailak,...
HITZAri buruzko informazioa

Begoñ konponketak
Era guztietako konponketak: larrua, ohiala...
Kortinak eta kojinak ere josten ditugu
Kale Nagusia 43 • BILLABONA•Tel.: 943 69 36 12

Bidaia Agentzia bidaide
Erniobea, 6 behea
VILLABONA
943 69 26 93
Ondo pasa festak!

# Urte osoan koadrilek gogoan duten eguna

Billabonatar askorentzat jaietako egunik bereziena izaten da koadrilen eguna. Uztailaren 30ean, larunbata, izango da aurtengoan. Urte asko daramatzate Etxeondoko bazkaria antolatzen eta duen arrakasta ikusita, badirudi jarraipena izango duela luzaroan. Herriko koadrila guztiak kamiseta edo blusa jantzi eta egun osoan luzatzen den festarako prestatzen dira.

Goizean goizetik koadrilak Etxeondo ingurura gerturatu ohi dira. Batzuk, bezperako ajea pasatzeko oraindik; besteak gau osoan ederki lo eginda... Guztiak aurretik duten festa eguna hasteko gogotsu.

**Egun osoko jai giroa**

Geroz eta jende gehiagok parte hartzen du koadrilen egunean. Zahar eta gazte bakoitza bere lagun taldearekin bildu ohi da egun honetan.

Horregatik, lekua hartzea ez da erraza izaten. Goizaldetik hasten dira antolakuntza lanak. Batzuk mahaiak eta aulkiak hartu, euren txokoa antolatzen hasi, besteak bazkaria prestatzeaz arduratu... Lana egin behar izaten da, baina gustoko lekuan ez da aldaparik izaten, ordea.



Duela bi urte, Koadrila egunean Nekaezinak txaranga izan zen jotzen. N. URBIZU

Eguerdi partean koadrila guztia batu eta bazkaria hasten da txarangak alaiturik. Incansables txarangakoek izango dute aurtengoan jaia girotzeko ardura. Bazkaloste luzea izaten da, arratsalde partean txarangarekin herrian zehar egiten den kalejira hasi arte. Ez da musika hor amaituko Bide Batez taldearekin erromeria izango baita arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Afaltzeko tartea hartu osteanberriro hasiko da erromeria Villabonako plazan.

Egun berezia izan ohi da Villabonakoentzat. Giro ederra sortzen da herrian, koadrila guztiak jai giroan ibiltzen direlako. Goizaldean ere, ardi galdu ren bat ikustea ohikoa izaten da. Askok urte osoan itxaroten duten eguna izaten denez ez da hain arraroa.

# Inoiz baino danborrada jendetsuagoa

**Danborrada** » Azken urteetako danborradarik jendetsuena izango da gaur gauean Villabonako kaleak hartuko dituena

Urtero danbor soinua nagusi izaten da Villabonako kaleetan jaietako lehenengo egunean. Aurtengoan inoiz baino ozenagoa izango da burrundara. Azken urteetan egin den danborradarik jendetsuena izango da gaur gauekoa. Entseguetan aritu dira azken hilabetean helduen danborradako parte hartzaileak gaur gauean maila emateko.

Musika eskola parean gaueko hamaiketatik aurrera bilduko dira danbor eta barril joleak. Iraunkorrak txaranga izango dute lagun. Kantinerak ere ez dira faltako. Herri guztian zehar danbor soinuak zabaldu ostean,gaueko hamabiak aldean, plazan amaituko dute beren emanaldia.

Pieza ugari jotzen dituzte baina inongo zalantzarik gabe *Santiago martxa* izaten da billabonatarrentzat bereziena. Santio jaien gainean egindako martxa da, abestiak letra ere badu eta herritarrek danborra jotzearekin batera abestu ere egiten dute.Abesti ezaguna da billabonatar ororentzat, horregatik publikoko jendeak ere abestu ohi du.

**Danbor eta barril hotsak**

Herriko gazteek beti parte hartu izan dute jaietako lehen eguneko danborradan. Ekitaldi jendetsua izaten da urtero. Danbor jole eta barril joleen artean banatzen dute taldea. Batzuk zuriz jantzita eta besteak maoizko galtza eta kamiseta zuriarekin. Taldea bitan banatze horrek soinu aldetik efektu berezia sortzen du.Hiru sukaldariren aginduei jarraitzen diete.

Danborrada amaitu ondoren, festak jarraipena izango du. Dantzaldia izango baita plazan Triki take taldearekin.

# Onddok ere badu bere eguna

**Onddo Gazte Asanblada** » Egitarau oparoa antolatu dute uztailaren 28rako, goizean hasi eta egun osoan luzatuko da festa

Onddo Gazte Asanbladak ere izango du bere lekua jaien baitan. Udaletik adierazi dutenez, ez dituzte egunak «gazte eguna, jubilatuen eguna... bezala izendatu nahi izan», hala ere, inongo zalantzarik gabe uztailaren 28an, asteartea, Onddo Gazte Asanbladakoak izango dira protagonistak.

Seigarren urteurrena ospatu zuten aurten eta oztopoak oztopo aurrera egiten dakitela erakutsi dute. Ekitaldi ugari antolatu dituzte egun horretarako asanbladakoek eta baita Udalekoek ere.

**Batukadarekin hasiko da Onddokoen jaia**

Onddo Batukada taldea hasiko da eguerdiko hamabietatik aurrera kaleetan giroa jartzen. Ondoren, 14:00etatik aurrera bazkaria izango da Berdura plazan.

Bazkariaren ostean, musikarako tartea izango da, horretarako hiru talde hartu baitituzte. 17:00etan Orkestra Nazional taldearekin poteo-kalejira izango da. Ondoren afari-merienda egingo dute plazan.

21:00etatik aurrera Inpecables talde nafarraren doinu mexikarrak entzungo dira . Gauean Joselu anaien erromeriarekin luzatuko da jaia.



Onddokoak, artxiboko irudian. I.G.

GOIATZ
MARGOAK OROKORREAN
- INDUSTRIALA - FATXADAK -
- FATXADAK ERABERRITZEKO - HARRIA GARBITZEKO...
Errota kalea, 6 - 2.ezk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01•faxa: 943 69 31 01• 609 14 37 13

SAHATSA
BELARDENDA
Kontsulta Naturistak
Dietak doan
Kale Nagusia, 13
943 69 40 63
Errota, 5
943 69 42 79
BILLABONA

2000E PLANAREN MEMENTOA DA
CITROËN MEMENTOA DA
CITROËN prefiere TOTAL
CITROEN C4
HDi 11.600€tik
CITROEN C3 HDi 8.600€tik | C1 GAMA 6.100€tik
CITROEN XSARA PICASSO HDi 12.600€tik
CITROEN C4 SEDÁN HDi 15.500€tik
CITROËN KONFIDANTZAZKO PLANA: LANGABEZI ESTALDURA OPARI
ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA: C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP
CITROËN
IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

# Jaietako azken eguna ere ez da oharkabean igaroko Villabonan







**Sexty Sexers, Funtastic planet eta Esne Beltza ariko dira, besteak beste, jaien azken egunean Villabonan.** SAIOA CABAÑAS/ HITZA / S.C.

**Kultura »** Jaien amaiera indartu nahi izan dute; rock maratoia arratsaldean, batukada iluntzean eta gauean ere kontzertuak izango dira.

Santio jaiak ez dituzte isilean agurtuko billabonatarrek. Musika nagusituko da azken egunean. Aurten estreinakoz, rock maratoia antolatu dute arratsalderako eta gauean ere kontzertuak izango dira; Esne Beltza eta Sexty Sexter taldeekin. Honekin, erroskilaren erreketa protagonista izaten zen eguna indartu nahi izan dute.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko dira rock maratoieko kontzertuak Gudarien plazan. Lau taldek hartuko dute parte maratoian: Skasty, Disorders, Zura eta Funtastic Planet. Horretaz gain, barra , animazioa eta hainbat sorpresa ere izango dira. Rock maratoiaren ondoren, Onddo Batukada taldekoak irtengo dira kalera. Ez da hor amaituko egun honetako musika gauean ere 00:00etatik aurrera ere kontzertuak izango baitira plazan, Esne Beltza eta Sexty Sexter musika taldeek jo dute.

## ROCK KONTZERTUAK

### Skasty

2005eko udararen bukaera aldean sortu zuten taldea. Estilo nahiko zabala du, beti ere punk, ska, reageren barruan. Taldekideak: Xabier (ahotsa), Iker (ahotsa), Jon (kitarra), Ander (baxua), Joel (kitarra), Mikel (tronpeta), Iosu (tronboia) eta David (bateria) dira.

### Disorders

2000. urtean Zaldibarren sortutako taldea da. Street-Punk estiloa jotzen dute, kaleko letrak jorratuz eta txalaparta erritmoak konbinatuz. Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz mintzatzen dira.Taldekideak: Iñigo, Kopo, Andoni, Mendi, Fils, Maider eta Tiburestua testua testua testua testua.

### Zura

Zuraren estiloak musika akustikoaren arlo esperimentalerantz jotzen duela esan daiteke, soinu akustiko gordina bilatuaz. Euskaraz abesten du Hondarribiako taldeak honek.Taldekideak: Martxel Mariskal (abeslari eta letragilea), Anjel Etxebeste (baxujolea), Xabi Strubell (gitarrajolea eta letragilea), David Martinez (gitarrajolea) eta Diego Garcia (baterijolea).

### Funtastic planet

Rock maratoi honetan joko duen eskualdeko talde bakarra da.Tolosaldeko eta Lizarrakoak dira taldekideak.Patxi Azpirozek (gitarra),Txomin Azpirozek (baxua), Iñaki Larreak (bateria) eta Iker Pinillosek (ahotsa) osatzen dute taldea eta beraiek ekoiztutako lehen laneko abestiak joko dituzte Villabonan.

## GAUEKO KONTZERTUAK

### Esne beltza

Soul, Ska, Reage eta trikiti doinuak ekarriko dizkigu taldeak. Euskal musikagintzako izen ezagunek osatzen dute taldea, besteak beste Etzakiteko kide ugari daude bertan. Xabier Solano, Sergio «Patxuko», Jon Trombon, Haritz Lonbide, Iban Zugarramurdi, Pello Gorrotxategi, Jon Mari Beasain, Aitor Zabaleta eta DZ dira taldekideak. Made in Euskal Herria diskoko abestiez gain, Etzakit eta Joxe Ripiau taldeen abestiak entzuteko aukera ere izaten da.

### Sexty Sexers

Euskal rock musika taldea beratarra da. Hasiera batean Ameba izena zuten, baina 2005eko ekainean SextySexers izenarekin jotzen hasi ziren. Taldekideak: Mikel Larratxe (ahotsa), Julen Irazoki (gitarrak, koroak), Joseba Baleztena (gitarrak), Xiker Salaberria (baxua, koroak) eta Inaxio Agara ( bateria).

ALBIZU KIROLAK
Nagusia, 2 • Billabona
Tel.: 943 69 31 31
faxa: 943 69 31 31


OKINDEGIA
ondo pasa!
Erniobea 3
Billabona
Tel.: 943 69 33 75

Villabonako festetan ere zuekin!
VIKER
943 69 40 01
Erniobea, 19 • Villabona


Villabonako Santio Jaiak 09
Jaiak bizi eta gozatu!!
Ez daudenak gogoan hartu!
Villabonako Udala